




DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Durangoko Berdintasunerako Udal Kontseiluaren Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudia

- Hasierako onarpena: Osoko Bilkura, 2005/05/26koa
- [Iragarpenaren argitaratzea: BAO, 124zk., 2005/06/30ekoa](#)
- [Testu osoa argitaratzea: BAO, 179zk., 2005/09/20koa](#)
- Aldaketa: Osoko Bilkura, 2007/02/22koa
- [Iragarpenaren argitaratzea: BAO, 46zk., 2007/03/06koa](#)
- [Aldaketa argitaratzea: BAO, 88zk., 2007/05/07koa](#)
- Aldaketa: Osoko Bilkura, 2008/09/25ekoa
- [Iragarpenaren argitaratzea: BAO, 215zk., 2008/11/07koa](#)
- [Aldaketa argitaratzea: BAO, 4zk., 2009/01/08koa](#)



DURANGOKO BERDINTASUNERAKO UDAL KONTSEILUAREN ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIA

ATARIKOA

Araudi honekin batera, martxan hasten da Berdintasunerako Durangoko Kontseilua, Durangoko Udalaren solaskide baliotsua izango dena berdintasuneko politikei dagokienez.

Gizonek eta emakumeek gizartean bete izan duten paperak aldaketa garrantzitsua ezagutu du. Emakumeek geroz eta partehartze handiagoa dute lan-merkatuan, hezkuntza maila guztietara iristen ari dira, prestakuntza eta kultura maila handia lortzen ari dira eta, oraindik apalagoa bada ere, erabaki-guneetara ere iristen ari dira. Gizartean aldaketa nabarmenak ematen ari dira gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko. Aldaketa hauek lortzeko ezinbestekoak izan dira talde feministak eta emakumeen eskubideen alde lanean jardun izan duten emakume anonimoak.


Hala ere, lan-merkatuko datuek, partehartze sozio-politikoak, etxeko lanak egin behar izateak, emakumeen kontrako biolentziak, pobretasunak eta holakoek erakusten digute emakumea dela kaltetuena berdintasun eta justizia gabeko egoeretan, eta honek berdin balio du iparraldeko herrialdeetarako zein herrialde behartsuetarako, nahiz eta azken hauetan egoera oraindik mingarriagoa den.

Oraingo erronka da lege testuek formalki aitortzen duten berdintasunerako eskubidea modu praktikoan eta eraginkorrean bermatzea.

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.1. artikulua, Espainiako Konstituzioak ebazten duena bere gain hartuz, berdintasunerako eskubidea eta sexuarengatiko diskriminazio eza aldarrikatzen ditu. Halaber, 9.2.d) artikulua ezartzen duenez, herri agintek baldintza jarri behar dituzte gizon-emakume eta taldeen arteko berdintasuna benetakoa eta eragingarria izan dadin.

Bestalde, otsailaren 18ko, 4/2005 Legeak, gizon eta emakumeen berdintasunari buruzkoa, duela gutxi onartu zuena Eusko Legebiltzarrak, mekanismoak eta neurri zehatzak planteatzen ditu euskal administrazio publikoek gizon eta emakumeen arteko desberdintasunaren fenomeno estruktural eta unibertsal hau ezabatzeko politika eta jarduera eraginkorragoak garatu ditzaten.

Berdintasun-politika guztietan nabarmentzen da emakumeen elkartegintza sustatu beharra. Emakumeak ahaleginak egiten ari dira bizitzaren esparru guztietara sartzeko eta hau, berez, aldaketa-eragilea da. Emakumeen elkarte berriak ari dira sortzen, eta honi esker bizitza publikoan eta erabakitze-postuetan sartzeko aukera dute, orain arte betetzen ez zituzten esparruak hain zuzen ere.



Helburu hau lortzeko sortu da Berdintasunerako Udal Kontseilua, hau da, partehartze-bideak ahalbidetzeko berdintasunaren alde diharduten elkarte eta gainerako erakundeen eta Toki Administrazioaren artean eta, beti ere, emakumeen presentzia areagotzeko arlo publikoan.

Horregatik, Berdintasunerako Durangoko Udal Kontseiluak ezinbesteko tresna behar du izan emakumeek parte hartu dezaten gure udalerrian. Azken baten, herritarrek eta elkarteek Udaleko gaietan parte hartu dezatela lortu nahi da. Kontseiluak Durangoko emakumeen "empowering"-a lortzeko balio behar du, erran nahi baita, gure ingurunean eragiteko dauzkagun ahalmenez jabetzea.

Herri mailako araudiak kontseilu sektorialak sortzeko aukera aurreikusten du, herritarren partehartzea bideratzeko eta aholkuak eta proposamenak jasotzeko.

Aipatutako araudi-aurreikuspenak aplikatuz, Durangoko Udalak behar beharrezkoa iritzi dio Berdintasunerako Udal Kontseilua eratzeari.

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK


1. ARTIKULUA: IZAERA

- 1.1. Berdintasunerako Durangoko Emakumeen Kontseilua kide anitzeko organoa da, eta aholkua eta informazioa emango du, eta bertan lehentasuna emango zaio emakumeen parte hartzeari. Bere helburua uriko andrazkoen partaidetza demokratikoa bermatzea da, emakumeen eta gizonezkoen arteko aukera-berdintasuna garatzeko eta bultzatzeko, udalaren politikan, kulturaren, ekonomian eta gizartean.
- 1.2. Arautegi honek eta aplikagarri diren gainerako xedapenek zuzenduko dute Kontseilua.
- 1.3. Kontseilua ez da Udal Korporazioaren menpe egongo eta autonomia funtzionala edukiko du.

2. ARTIKULUA: KONTSEILUAREN HELBURUAK

Udal Kontseiluaren helburuak dira:

- a) Pertsonen arteko berdintasun-baloreak zabaltzea, sexua dela-eta bereizketarik egin gabe.
- b) Elkartegintza sustatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna helburutzat duten taldeen integrazioa bultzatuz.




- c) Udalaren politikek eta zerbitzuek andrazkoen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna bermatzea zaintzea.
- d) Euren jatorria, etnia, minusbalotasun, erlijio, joera sexuala, lanbidea eta abarrak direla eta, era askotako bazterketa pairatzen duten emakume-taldeein benetako aukera-berdintasuna bermatzen zaiela zaintzea.
- e) Azterketak eta txostenak egitea bultzatu beharreko politikak proposatzeko administrazio-organoei, beti ere, gizon eta emakumeen arteko berdintasun-printzipioa Durangoko esparru guztietara hedatzeko: politika, gizartea, kirola, lan mundua, hezkuntza, eta abar.

II. KAPITULUA : FUNTZIOAK

3. ARTIKULUA: FUNTZIOAK

- 3.1. Aurreko artikuluan ezarritako helburuak lortzeko, Kontseiluak funtzio hauek beteko ditu:
 - a) Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko Udaleko politikak gidatu eta aholkulari-lanak egin.
 - b) Aukera berdintasunerako udal jarduera-planak bultzatzea eta berauen jarraipena egitea. Halaber, Udaleko berdintasun planaren printzipioak betetzen ote diren ikuskatzea.
 - c) Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko neurriak sustatzea eta formulak proposatzea programak, ekintzak eta eskaintza bereziak planteatzeko instantzia ezberdinetan, bereziki, udal mailan.
 - d) Sentsibilizazio eta informazioa kanpainak egitea aukera berdintasuneko emakumeen bizitza kalitatea hobetze aldera.
 - e) Emakume guztiek udalaren gaietan parte hartu ahal izatea erraztea.
 - f) Emakumea sustatzeko ekintza zuzenak edo zeharkakoak gauzatzen dituzten elkarte eta erakundeen arteko lankidetzeta eta kooperazioa bultzatzea.
 - g) Kontseiluaren eskumenak aintzat harturik, agindu diezaiokeen bestelako funtzioen bat.
- 3.2. Berdintasunerako Udal Kontseiluaren funtzioak honela beteko dira: txostenak, irizpenak, proposamenak eta eskariak eginez udaleko gobernu organoei.



III. KAPITULUA : KONTSEILUAREN OSAKETA

4. ARTIKULUA: KONTSEILUAREN OSAKETA

4.1. Hauek izan daitezke Berdintasunerako Durangoko Kontseiluko eskubide osoko kide:

Kontseiluan parte hartzen duen edozein pertsona, elkarte, erakunde edo fundazio, beti ere, berdintasuna bultzatzeko ekintzen garapena bilatzen badute, emakumeen eskubideen defentsa eta ikuspuntutik begiratuta.

a) Ondorengo baldintzak bete beharko dituzte

1. Legez eratuta egotea eta dagozkion Erregistroetan izena emanda egotea.
2. Estatutuak Durangon helbideratuta izatea edo delegazio ofizial bat edukitzea Durangon.
3. Emakumezkoen eskubideen ikuspegitik eta eskubide horiek defendatzeko, berdintasuna sustatzeko jarduerak egiten dituela ziurtatzea, edo generoaren ikuspuntua erabiltzea dena delako eginkizunetan.
4. Irabazi-asmorik ez edukitzea, eta bere barruko egitura eta funtzionamendurako erregimena demokratikoak izatea, indarrean dagoen legediaren arabera.


b) Durangon ordezkariak daukaten sindikatueta emakumezkoen sailak.

c) Irabazi asmorik gabe diharduten eta berdintasunaren aldeko ekintzak egiten dituzten pertsona fisikoak, baldin eta interesa adierazten badute gaiaren inguruan.

Pertsona juridiko edo sail bakoitzak, gehienez ere, bi ordezkari izendatuko dituzte ahots eta botoarekin. Halaber, titular bakoitzeko ordezkari bat ere izendatu daiteke. Pertsona fisikoek euren burua ordezkari dute Kontseiluan eta ahotsa eta botoa izango dute.

4.2. Parte tekniko instituzionalen aldetik, hauexek izango dira Kontseiluko kide:

- a) Aukera Berdintasunerako Sailaren zinegotzia, ahotsarekin eta botoarekin. Presidente lana egingo du, alkateak hala izendatu eta gero.
- b) Aukera Berdintasunerako teknikari bat, ahotsarekin baina botorik gabe. Kontseiluko idazkari lana egingo du.
- c) Udaleko talde politiko bakoitzeko ordezkari bat. Izendapena alkateak egingo du talde bakoitzak proposamena egin eta gero. Udaleko talde politikoek pertsona delegatuaren izena eman beharko dute eta egiaztatu Kontseiluko idazkariaren aurrean. Halaber, titular bakoitzeko ordezkari bat ere izendatu dezakete.



Udal taldea pertsona bakar batez osatuta badago, ordezkoa izendatzeko orduan, alderdi politiko horren hautesle-zerrendan aurkeztu izan den beste pertsona bat izendatu daiteke.

- 4.3. Durangoko Berdintasunerako Udal Kontseiluak genero berdintasunaren esparruko pertsona adituak izan ditzake gai zehatz eta bereziak aztertzeko eta aholkularitza emateko. Parte hartu dezakete Kontseiluaren gehiengoak hala proposatzen badu. Partehartze hau puntuala izan daiteke, honela, Kontseiluak partehartze-denbora mugatu dezake. Aditu hauek ahotsa izango dute, baina botorik ez.

5. ARTIKULUA: KONTSEILUAN SARTZEA

- 5.1. Berdintasunerako Durangoko Udal Kontseiluan sartu nahi duten elkarte edo erakundeek Kontseiluko presidenteari bidaliko diote eskabidea. Horrekin batera, aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen dituzten beharrezko agiriak bidaliko dituzte, baldin eta agiriok Udaleko artxiboetan ez baude.

Kontseiluan sartzeko eskariak kontseiluak berak onartuko ditu, aurreko artikuluan ezarritako baldintzan bete direla egiaztatu ondoren.


- 5.2. Elkarte edo erakundeek agiri hauek bidali beharko dituzte eskabidearekin batera:

- a) Elkarte edo erakundearen estatutuak edo/eta gobernu organoen erabakiak, andrazkoek atalei edo sailei funtzionatzeko autonomia onartzen dietenak. Estatutuekin batera erregistro ofizial eskuduneko sarrera-zenbakiaren ziurtagiria edo frogagiria aurkeztu beharko da, eta beren beregi adierazi beharko da erregistro horretan izena eman zen eguna.
- b) Helbideratze sozialaren egiaztagiria, elkarte-kide kopurua eta zuzendaritza karguetan dauden pertsonen izena eta kargua.
- c) Berdintasunerako Durangoko Udal Kontseiluan arituko den ordezkaria eta horren ordezkoa izendatzeko erabakiaren ziurtagiria

- 5.3. Norberaren buruaren izenean parte hartu nahi duten pertsona fisikoek ondorengo datuak aurkeztu behar dituzte:

- Izena eta bi deitura.
- Kontseiluan parte hartzeko arrazoiak azaltzea.
- Gaiaren interesa dutenari buruzko adierazpena eta irabazi asmorik ez duteneko.
- Deialdiak jaso ahal izateko helbidea eta harremanetarako telefonoa.


- 5.4. Datu horietan aldaketaren bat gertatzen bada, Kontseiluaren Idazkaritzara jakinarazi beharko da, aldaketak jazo eta hilabete baten barruan.



- 5.5. Federakuntzaren batek kontseiluan parte hartzen badu, ezingo dira kontseiluko partaide izan federakuntza horretako kideak.
- 5.6. Kontseiluan parte hartzeak honakoak dakartza: araudia onartzea, Kontseiluaren edukiei buruzko informazioa ematea dena delako elkarte edo erakundeari eta batzarretan hartutako konpromisoak betetzea.
- 5.7. Kontseiluan parte hartzeak ez du inolako ordain-saririk ekarriko.

6. ARTIKULUA: KONTSEILUKO KIDETZA GALTZEA

- 6.1. Elkarteek edo erakundeek Berdintasunerako Durangoko Udal Kontseiluko kidetza galduko dute arrazoi hauengatik:
 - a) Norbere borondatea.
 - b) Elkarte desegitea edo 4.1.b) artikuluan ezarritako baldintzen arabera funtzionatzeko autonomia galtzea.
 - c) 4. artikuluan ezarritako beste baldintzaren bat ez betetzea.
 - d) Kontseiluak edo Lan Batzordeek egindako 10 bileren barruan, ordezkariak, hiru bider jarraian edo bost aldiz txandaka batzarretara bertaratzen ez badira. Esandako hau udaleko ordezkarietzat ere balio du.
 - e) 5.2. artikulua aipatzen dituen datuen aldaketak ez jakinaraztea ezarritako epean.
 - f) Kontseiluaren araudia edo gobernuko organoen erabakiak behin eta berriz ez betetzea.
 - g) Kontseiluaren printzipio eta helburuen aurkako jokabideak izatea, jarduerak egitea edo adierazpenak agertzea, eta Kontseilua ahoz eta botoarekin osatzen duten kideen bi herenak hala uste izatea.
- 6.2. Pertsona indibidualen kasuan, aurreko ataleko arrazoiak aplikatuko dira, b letra izan ezik.
- 6.3. Kontseiluaren kidetza galtzea Kontseiluak berak erabakiko du dagokion espedientea tramitatu ondoren, eta honen berri emango zaio dena delako elkarteari edo pertsona indibidualari.



IV. KAPITULUA: UDAL KONTSEILUAREN ORGANOAK

7. ARTIKULUA: KONTSEILUAREN EGITURA

7.1. Berdintasunerako Durangoko Udal Kontseiluak egitura hau izango du:

- a) Batzar Nagusia.
- b) Presidentzia.
- c) Lehendakariordetza
- d) Lan batzordeak.
- e) Idazkaritza.


8. ARTIKULUA: BATZAR NAGUSIA

8.1. Batzar Nagusia Kontseiluaren organo gorena da, eta honela dago eraturta: Presidentzia betetzen duen pertsona, Idazkaritza betetzen duena eta 4. artikuluan jasotako elkarte eta erakundeetako ordezkariak eta pertsona indibidualak. Halaber, aukera berdintasunerako pertsona teknikaria ere izango da, idazkari lanak beteko dituen.

8.2. Gainerako elkarte, federazio eta erakundeek, gehienez ere, bi ordezkari izango dituzte Batzar nagusian, eta Kontseiluko idazkariaren aurrean egiaztatuko dute zein den titularra eta zein ordezkoa, beti ere, euren estatutuen arabera izendatutako pertsonak beharko dutelarik izan.

9. ARTIKULUA: BATZAR NAGUSIAREN AHALMENAK

- 1) Kontseiluaren jarduera-lerro nagusiak ezartzea.
- 2) Urteko jarduera egitaraua ebaluatzea eta, hala balegokio, onartzea, eta gauza bera kudeaketa-memoriari dagokionez.
- 3) Laguntasuna eskaintzea Durangoko Udalari urteko jarduera egitarauari dagokionez, norberaren inizatibari ekinez edo udaleko organoek hala eskatuz gero.
- 4) Kontseiluaren barruko arautegia eta funtzionamendurako gainerako arauak, bai eta horien aldaketak ere, onartzea.
- 5) Lan batzordeak izendatzea eta koordinatzea eta bere eginkizunak ikuskatzea.
- 6) Erakunde instituzionalen batek eskatzen duenean edo egoki dela uste duenean, Batzar Nagusiak gai zehatzei buruzko iritzia eman ahal izango ditu eta proiektu,



programa, plan, xedapen orokor edo andrazkoen interesetan eragina izan dezakeen beste edozein jarduerari buruzko txostena egin ahal izango du.

- 7) Udaleko sail ezberdinei beharrezko ikusten dituen proposamenak egitea Durangoko emakumeen interesak defenditzeko eta sustatzeko. Egin beharreko guztietan izaera multidiziplinarra bultzatuko da.
- 8) Kontseiluari jakinarazten zaizkion salaketa diskriminatzaileak batu eta bideratu dagokion organoen aurrean, beti ere, berdintasun-printzipioaren aurkakoak badira edo iraingarriak badira emakumeentzat.
- 9) Udalbatzak Arautegi hau aldatzeko, Udalaren sail eskudunari behar diren egintzak hastea proposatzea.
- 10) Erakunde berriak sartzeko eskariak onartzea, bai eta barruan daudenak kanporatzea ere, 5. eta 6. artikuluek ezartzen duten moduan.

10. ARTIKULUA: BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUA

10.1. Ohiko Batzar Nagusia bi hilabetetik behin bilduko da gutxienez, presidenteak deialdia egin ondoren. Batzarrak Udaletxean egingo dira.

10.2. Batzarra ohiz kanpo bilduko da presidenteak erabakitzen duenean, edo Batzar Nagusiko ordezkarien erdiak hala eskatzen badute.


Kontseiluaren Idazkaritzan eskabidea aurkezten den egunaren biharamunetik hasita zazpi egun naturaleko epea izango da Batzar Nagusiaren deialdia egiteko, eta 15 egun naturaleko epea bilera egiteko.

10.3. Ohiko Batzarrak, gutxienez, 7 egun natural lehenago deituko dira. Presazkoen deialdia egiteko, ostera, gehienez ere 4 egun naturaleko epea izango da. Hala ere, deialdiaren premia Batzar Nagusiak berretsi beharko du.

10.4. Kontseiluko presidenteak egoki deritzen gaiekin eta proposatzen dizkioten gainerakoekin osatuko da gai-zerrenda. Edozein kasutan, proposamen horiek Kontseiluko presidenteari bidali beharko zaizkio, bilera egin baino gutxienez 15 egun natural lehenago.

Zerrendan dauden gaiei buruzko dokumentazioa eztabaidarako eta, egoki denean, botaziorako oinarria izango da eta oso-osorik egon beharko da ordezkarien eskura Kontseiluko Idazkaritzan, jendea hartzeko orduetan.

10.5. Batzar Nagusia baliozkoa izateko, bazkideen herena bertaratu beharko da. Beti behar izango da presidentzia betetzen duen pertsona edo idazkaritza betetzen duena, edo horien ordezkoak, bertan egotea. Quorum hori bilera osoan beharko da.



Lehen deialdian ez badago quorum nahikorik, Batzar Nagusia ordu erdi geroago deituko da modu automatikoan, eta quorum berbera beharko da bilera balioarekin eratzeko.

10.6. Erabakiak adostasunez hartuko dira; bestela, botazio arrunta egingo da. Botoa baiezkoa edo ezezkoa izan daiteke, eta botoa emateko eskubidea daukatenek abstenitu egin daitezke.

Gai bati buruzko eztabaida hasi eta ordezkari bat edo bat baino gehiago falta badira, botazioan abstenitu egin direla ulertuko da.

Botazio batean berdinketa dagoenean, berriro emango da botoa.

Botoa pertsonala da eta ezin zaio inori utzi. Titularrak edo Kontseiluko Idazkaritzan behar bezala egiaztatuta dagoen ordezkariak eman beharko du botoa. Postaz emandako botoa ez da onartuko.

Oro har, botoa publikoa izango da. Botoa isilpekoa izango da ordezkarien gehiengo osoak eskatzen dutenean.

10.7.6.1.g) artikulua ezartzen duenaren kaltetan izan gabe, Batzarraren erabakiak, oro har, bertaratuen gehiengo sinplez hartuko dira. Hala ere, beren beregi zehazten diren kasuetan gehiengo osoa beharko da. Gehiengo sinplea izango da baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Gehiengo osoa izango da baiezko botoak Kontseiluko kide diren erakunde-kopuruaren erdia baino gehiago direnean. Edozein modutan, Kontseilu Sektorialen izaera aintzat hartuz, Batzar Nagusiaren akordioek proposamen ez lotesleen izaera izango dute Udal Administrazioarentzat.


10.8. Batzar Nagusira joan ahal izango dira Emakume Saileko langile teknikoak, bai eta eztabaidatuko diren gaietan adituak direlako edo eskumenak dauzkatelako gonbidatzen diren pertsonak ere. Hitz egin ahal izango dute, baina ez botorik eman.

Gonbidapenak presidentziak egingo ditu, Kontseiluaren gehiengoak hala onartu ostean, eta bat etorrita 4.3. artikulua ezartzen duenarekin.

11. ARTIKULUA: PRESIDENTZIA

11.1. Presidentzia gizon eta emakumeen berdintasunerako politikak sustatzeko eta garatzeko eskumena duen udal saileko zinegotzi-delegatuak beteko du, alegiak, alkatetzak izendatutako pertsona.

11.2. Kontseiluko presidentzia beteko duen pertsona erakunde horretako ordezkari gorena izango da eta hauek dira bere eskuduntzak.



- 1) Batzar Nagusirako deialdia egitea eta bilerako buru izatea.
 - 2) Batzar Nagusiko bilerak moderatzea, eztabaidak zuzentzea, erabakiak betetzea eta botazioetako berdinketak ebaztea.
 - 3) Arautegi hau interpretatzeko eta aplikatzeko egon daitezkeen zalantzak ebaztea.
 - 4) Kontseiluaren berezko helburuak betetzen direla zaintzea eta Kontseiluaren jarduerak indarrean dauden legetara egokitzen direla zaintzea.
 - 5) Batzar Nagusiak hartzen dituen erabakien berri ematea Korporazioari.
- 11.3. Huts egiterik, gaixotasunik edo bestelako arrazoi legalen bat gertatutako balitz, Presidentea, Presidente ordeak ordezkaturiko du, presidenteak idatzizko delegazioa egin eta gero, eta ordezkapenaren berri emango da bilkura hasitakoan.

12. ARITIKULUA: LEHENDAKARIORDETZA


Lehendakariordetza, kontseiluko kide batek hartuko du bere gain, eta elkarte-sarea ordezkaturiko du. Lehendakariordea pertsona guztien artean aukeraturiko da, emakumeen jabetasuna sozial eta politikoa garatzeko neurri moduan.

Lehendakariordetza urtero txandaturiko da kontseiluan parte hartzen duten elkarte guztien artean

Huts egiterik, gaixotasunik edo bestelako arrazoi legalen bat gertatutako balitz, lehendakariordea, elkarte beraren izenean kontseilura doan beste pertsonak ordezkaturiko du.

Lehendakariordetzak ondorengo funtzioak egingo ditu.

- 1- Lan batzordeko eta batzar nagusiko lanen kordinazioa.
- 2- Berdintasuneko batzordeko batzarretara joatea, hitz egiteko eskubidearekin baina botorik gabe, udaleko berdintasuneko planen jarraipena egiteko, beti ere, berdintasuneko batzordearen gai-zerrendan biltzen diren asuntok bere partehartzea eskatzen badute.
- 3- Presidentziak delegatzen dizkion betebeharrak egitea.




13. ARTIKULUA: LAN BATZORDEAK

- 13.1 Lan Batzordeak azterketarako eta lanerako organoak dira eta Kontseiluaren menpe daude. Euren zeregina emandako helburuetarako egokiak diren txostenak eta proposamenak egitea da. Egiten duten guztiaren berri eman beharko diote Batzar Nagusiari. Lan batzordeen proposamenak Batzar Nagusiak onartu beharko ditu Kontseiluak bere gain hartu ditzan.
- 13.2 Lan Batzordeak iraunkorrak izan daitezke edo gai zehatzak aztertzeko eratu daitezke, eta txosten modura aurkeztuko zaizkio Batzar Nagusiari.
- 13.3 Lan Batzordeak Batzar Nagusiak sortuko ditu, ofizioz edo Batzar Nagusiko ordezkarien heren batek hala eskatzen duenean, eta izendapena, eraketa eta funtzionamendua finkatuko dira.
- 13.4 Lan Batzordeen bilerak lan batzordea osatzen duten elkarte baten egoitzan egingo dira.

14 ARTIKULUA: IDAZKARITZA

- 14.1 Idazkaritza Udaleko aukera berdintasunerako pertsona teknikari batek beteko du.
- 14.2 Idazkaritzari dagozkio Kontseiluaren kudeaketa administratiboa eta teknikoa. Idazkaria Batzar Nagusian eta Lan Batzordeetan izango da. Idazkaria Kontseiluko Batzar Nagusiaren bileretan izango da, hitzarekin baina botorik gabe.
- 14.3 Hauek dira Idazkaritzaren funtzioak:
- 1) Presidentziak aginduta, bileretako deialdiak egitea eta bidaltzea.
 - 2) Kontseiluko presidentziari laguntzea, bere eginbeharrekoei dagozkien gaietan eta halaxe eskatzen dizkiotenean.
 - 3) Bileretako aktak egitea.
 - 4) Jakinarazpenak, datu-eskabideak, zuzenketak edo bere karguagatik jaso behar duen beste edozein idazki jasotzea.
 - 5) Kontseilua osatzen duten erakundeen erregistroa, eta kide, ordezkari eta erakundeetako ordezkarien zerrenda eguneratuta edukitzea.
 - 6) Batzar Nagusiaren erabakien ziurtagiriak egitea.
 - 7) Kontseiluko organoek eskatzen dizkioten eginbeharrak.



DURANGO
Udala • Ayuntamiento
.....


V. KAPITULUA: HERRITARREN PARTAIDETZA

15 ARTIKULUA

Berdintasunerako Durangoko Udal Kontseiluak bere kudeaketaren berri eta bere jardueraremuarekin lotutako gaien berri emango die herritarrei; horretarako, bere eskueran dauden eta egoki deritzen baliabide eta informazio-ekintzak erabiliko ditu. Era berean, herritarren iritzia eskatu ahal izango du eztabaida, bilera, kontsulta, inkesta edo egoki deritzon beste edozein modu erabilita.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau indarrean sartuko da apirilaren 2ko Toki Jaurpideko Oinarriak arautzen duen 7/85 Legearen 70.2 artikulua ezartzen dituen baldintzak bete ondoren.



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

DELEGARITZA

(1)..... jaun/andreak,
(2)....., adierazten du, ezinezkoa duelako
.....-ren-(e)an egingo den Durangoko Udal Berdintasun
kontseiluaren batzarrera joatea, eta, horrexegatik, DELEGATU egiten du bere
ordezkaritza eta botoa jaun/andrearen
alde.

Horrela agertzeko, sinatzen dute ondorengo dokumentua, Durangonko
.....-ren-(e)an

Sinatua. Jaun/Andrea.....
Delegatzailea

Sinatua. Jaun/Andrea.....
Delegatua

(1) Delegatzailearen izen abizenak.
(2) Kargua.